

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

36/2022 Foru Agindua, otsailaren 21ekoa. Behin betiko onestea, baldintzekin, Lezako udalerriko plangintzako arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren espedientea, 5 poligonoko 652 partzelari buruzkoa

Lehenengoa. 2021eko maiatzaren 31n, Lezako Udalaren Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen hasierako onespena ematea Lezako udalerriko plangintzako arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren espedienteari, zeina 5 poligonoko 652 partzelari buruzkoa baita, eta espedientea 45 egunez jendaurrean jartzea Iragakia 2021eko ekainaren 11ko ALHAOn (64. zk.) eta 2021eko ekainaren 7ko El Correo egunkarian argitaratu zen.

Horretarako aurreikusitako epean 11 alegazio idazki aurkeztu ziren, guztira 115 pertsonak sinatuak.

Bigarrena. 2021eko irailaren 6an Lezako Udalbatzak, bilkura berezian, aho batez erabaki zuen hasierako onespeneren ostean espedientea jendaurrean ikusgai egon zen aldi egin ziren alegazioak ezestea, prozeduraren izapide guztiak betetzat jotzea, Lezako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen 6. aldaketa puntualari behin-behineko onespena ematea eta espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea, aginduzko txostena egin dezan.

Hirugarrena. Halaber, aldaketaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin da Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoarekin bat etorritik. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren irailaren 7ko 237/2021 Foru Aginduaren bidez, Lezako arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa eman zen, eta ingurumen baldintza batzuk ezarri ziren, ondoren hirigintza dokumentuan erantsi beharrekoak.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, 2021eko abenduaren 15ean, espediente horri buruzko txostena eman zuen, eta bertan adierazi zuenez, hirigintza dokumentuan behar bezala jaso dira Ingurumen Txosten Estrategikoan nabarmentzen ziren alderdiak, dokumentu horrek behin betiko onespena izan dezan.

Laugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, abenduaren 21eko 6/2021 bilkuran, espedientearen aldeko txostena egitea erabaki zuen, lurralde antolamendura egokitzeari dagokionez, eta URA-Uraren Euskal Agentziak egindako aldeko txostena bidali zuen.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2022ko urtarrilaren 12an aurkeztutako idazki baten bidez, Lezako Udalak espedientea bidali zuen, behin betiko onespena jaso dezan.

Seigarrena. Ingurumen eta Hirigintzako zuzendariaren 2022ko urtarrilaren 24ko idazkiaren bidez (Lezako Udalarik 2022ko urtarrilaren 26an jakinarazi zitzaion), espedientea osatzeko dokumentazioa aurkezteko eskatu zitzaion, eta berariaz adierazi zitzaion hura bidali arte ez zela behin betiko onesteko hiru hilabeteko epea zenbatzen hasiko.

Lezako Udalak 2022ko urtarrilaren 26an eta 31n aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa Arabako Foru Aldundiko Erregistro Telematikoa.

Zazpigarrena. Era berean, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espediente horren txostena egin zuen otsailaren 17ko 1/2019 bilkuran.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Lehenengoa. Lezako Udalak sustatu eta izapidetu duen espediente honen xedea 5-652 hiri partzelaren zati baten kalifikazioa aldatzea da, hain zuzen, "Jabari eta erabilera publikoko berdegunea" kalifikaziotik "Kultura, osasun eta laguntza erabilerako komunitate ekipamendua" kalifikaziora.

Bigarrena. Horretarako, udal plangintzako arau subsidiarioak aldatu behar dira – abenduaren 9ko 440/2003 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren behin betiko, eta 2005eko abuztuaren 26ko 95 zenbakiko ALHAOn argitaratu zenean sartu ziren indarrean –, eta aldaketa horrek aipatutako arauen zati grafikoari (planoei) baino ez dio eragiten.

Hirugarrena. Aldaketa honen justifikazioa da, dokumentu teknikoan zehazten den bezala, aldaketaren xede den partzelaren zati batean erabilera anitzeko zuzkidura eraikin berri bat egin nahi dela. Eta partzela zergatik aukeratu den argudiatzeko, adierazten da udalaren jabetzakoa dela eta hirigunearen erdigunean kokatzen dela, non biztanleentzako hainbat zerbitzu biltzen diren.

Laugarrena. Indarrean dauden Plangintzako Arau Subsidiarioen (AS) 114.3 artikulua arabera, Espazio Libreen Sistema Orokorak (ELSO) honako hauek osatuko dituzte: kalifikazio xehatuko planoetan adierazitako jabari eta erabilera publikoko eremu libreek (plano horien testuan jabari eta erabilera publikoko berdegune gisa definitzen dira).

Bosgarrena. Arau Subsidiarioen 115. artikulua xedatzen duenez, ELSO sisteman onartzen diren ekipamendu bakarrak kirol, kultura edo jolas erabilerarekin lotutakoak dira, eta gehienez ere ELSO gisa kalifikatutako azalera osoaren ehuneko 5eko azalera okupatu behar dute. Gainera, SGEL sistemaren azalerek, aipatutako ekipamenduei lotutako eraikuntzak eta instalazioak izan ezik, dagokien estandarra bete behar dute.

Seigarrena. Lezako udalerriko hirigintza planeamendua eta hirigintzako legeria aplikagarria kontuan hartuz dokumentua aztertu da, eta zuzendu beharreko zenbait alderdi aurkitu dira. Atal hauetan daude zehaztuta:

1. Justifikatu egingo da ELSO gisa kalifikatutako azalaren murrizketak dagokion estandarra betetzen duela (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 78. artikulua eta Hirigintza Estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuaren 5. artikulua). Azalera horretatik, kirol, kultura edo jolas erabilerari lotutako instalazioei eta eraikuntzei dagokien azalera ere kenduko da Arau Subsidiarioen 115.3 artikulua). Betetzen ez badira, estandarra betetzen dela bermatzeko behar diren lursail azalera kalifikatuko dira.

2. Justifikatu egingo da kirol, kultura edo jolas erabilerari lotutako instalazioei eta eraikuntzei dagokien azalera ez dela ELSO gisa kalifikatutako azalaren ehuneko 5 baino gehiago (Arau Subsidiarioen 115.2 artikulua).

3. Kultura, osasun eta laguntza erabilerako komunitate ekipamenduaren kalifikazioa eman nahi zaion partzelaren zatirako sarbidea jabari eta erabilera publikoko bide edo espazio libre batetik egingo da. Kalifikazio xehatuko 3.2-R planoan adierazten den bezala, kirolerako komunitate ekipamenduaren kalifikazioa duen partzelaren zatitik sartzen da.

4. Erabilera anitzeko zuzkidura eraikin berri bat ezartzeko eta egiteko aldaketaren ebaluazio ekonomikoa bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterlanean eta jasangarritasun ekonomikoari buruzko memorian islatuko da, eta aldaketa gauzatzeko denborak, berriz, egikaritzaren antolamendu eta kudeaketa jarraibideen azterketan (etapen plana).

5. Egungo egoeraren eta aldatutako egoeraren planoek arau subsidiarioen hasierako dokumentuan izandako aldaketak jaso beharko dituzte Horri dagokionez, adierazi behar da ez direla erantsi 6-497 partzelari (3. aldaketa), Kale Nagusiko 43 zenbakiko partzelari (4. aldaketa) eta 5-790 partzelari (5. aldaketa) buruzkoak.

6. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak 2021eko uztaillean emandako txostenean ezarritako baldintzak planoetan eta araudian jasoko dira.

7. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, txosten honetan adierazitako baldintzak betetzen dituen dokumentazio guztia berriro aurkeztuko da, bai fitxategi editaezinetan, bai artxibo editagarrietan.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea, baldin eta ebazpen honen seigarren oinarrian adierazitako alderdiak betetzen badira, Lezako udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren espedientea, 5-652 hiri partzelaren zati baten kalifikazioa "jabari eta erabilera publikoko berdeguneren" kalifikaziotik "kultura, osasun eta laguntza erabilerako komunitate ekipamendura" aldatzeari buruzkoa.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 21a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO